UR HORNIDURA SAREAREN SEKTORIZAZIORAKO NEURKETA ETA DATU-KOMUNIKAZIO EKIPOEN HORNIDURA ETA INSTALAZIOA KONTRATATZEA, BERRESKURATZE-, ERALDATZE- ETA ERRESILIENTZIA-PLANAREN BARRUAN. EUROPAR BATASUNAK FINANTZATUA - NEXTGENERATIONEU 2025ID170008

BALDINTZA TEKNIKOEN PLEGUA Ur hornidura sarearen sektorizaziorako neurketa eta datu-kudeaketa ekipoen hornidura eta instalazio kontratua

AURKIBIDEA

AURREKARIAK....2
1. SARRERA....3
2. HELBURUA....3
3. METODOLOGIA....3
4. ENTREGATZEKOAK....13
5. ETIKETATZE BERDEA ETA ETIKETATZE DIGITALA....13
6. INGURUMENARI KALTE NABARMENIK EZ ERAGITEKO PRINTZIPIOA (DNSH)....13
7. KOMUNIKAZIO-BETEBEHARRAK....14
8. HIZKUNTZA BETEBEHARRAK....15
9. BERDINTASUN BETEBEHARRAK....15

AURREKARIAK

Uraren zikloa erabat digitalizatzeko eta uraren zikloaren kudeaketa seguruagoa, eraginkorragoa eta jasangarriagoa lortzeko bidean DIGURBE proiektua sortu zen, Añarbeko Urak eta hainbat udalerri biltzen dituen mankomunitatean, Europako Batasunak finantzatutako Berreskurapen, Eraldaketa eta Erresilientzia Planaren barruan. Bertan, azpiegituren eraginkortasuna bermatuko duten jarduerak egingo dira, uraren zikloaren fase guztietan eragina izango dutenak: hornidura, saneamendua, banaketa eta isurketa. Horietan, esku-hartzeak egingo dira datuak etengabe jasotzeko, informazio-sistemetan txertatzeko, energia-eraginkortasuna hobetzeko, gardentasuna handitzeko eta erresilientzia eta zibersegurtasuna hobetzeko.

Lezoko Udalak, proiektu honen parte izanik, uraren erabileraren ezagutza hobetuko du Lezoko uraren zikloan zehar, bere baliabide hidrikoen kudeaketa integratua sendotuz eta uraren erabileraren eraginkortasuna eta efikazia hobetuz.

Lezoko udalerrian uraren ziklo osoa digitalizatzeko proiektuan zehar egin beharreko jarduketen artean, baldintza teknikoen plegu honek hornidura sarearen sektorizazioa egikaritzeko beharrezkoak diren ekipoen hornikuntza eta instalazioa zehazten ditu. Sektorizazio proposamena Uraren Zikloaren Digitalizazioaren Berreskurapen, Eraldaketa eta Erresilientzia Planaren baitan burututako Lezoko hornidura-plan integralean zehaztu da.

1. SARRERA

Digurbe-Donostialdeko Uraren Zikloaren digitalizazio proiektuaren baitan eta Europar Batasunak finantzatutako Berreskuratze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren barruan dagoeneko Hornidura-Sarearen Plan Integrala osatu da. Bertan, besteak beste, sarearen funtzionamendua aztertu da eta sistema hobetzeko proposamena zehaztu da.

Informazio hori oinarri hartuz hornidura-sarearen sektorizazio-lanak eta presio handiko guneetan presioa murriztera bideratutako jarduerak egikarituko dira. Jarduera horiek ekarriko lituzketen ondorioak simulatu dira hornidura sarearen eredu digital baten bitartez eta sarearen funtzionamenduan eta kudeaketan hobekuntza nabarmena ekarriko dutela aurreikusi da.

2. HELBURUA

Lan hauen helburu nagusia hornidura-sarearen kontrola eta kudeaketa hobetzea da, sarearen sektorizazioa egikaritzeko beharrezko neurketa eta komunikazio ekipoak instalatuz. Gainera, egungo sarearen emari-presio azterketak eta etorkizunerako proiekzioak egin dira eta azterlan horietatik ondorioztatutako esku-hartzeak ere egingo dira sarearen funtzionamendu optimoa bermatzeko.

Hornidura sarea 7 sektoretan banatuko da -5 sektore eta 2 azpisektore- eta sektore bakoitza kudeatzeko beharrezko neurketa eta datu-bilketa eta komunikazio ekipoak instalatuko dira. Horretaz gain, 108 poligonoaren (Iturrin) sarreran presioa murrizteko balbula bat ere instalatuko da.


3. METODOLOGIA

Udal ur hornidura-sarea zazpi sektoretan banatuko da: lau sektore Lezoko hirigunean kokatzen dira (1, 2, 2.1 eta 3 sektoreak) eta gainerako hiru sektoreak industria eremuan (4, 5 eta 5.1 sektoreak).

3.1. SEKTOREEN HEDADURA ETA GAILUAK KOKATZEKO KUTXATILEN KOKAPENA


a) HIRIGUNEKO SEKTOREAK

SEKTOREA	KUTXATILAREN KOKAPENA
1 SEKTOREA	Herriondo Bailara kalea, Jaizkibel Hiribidearekiko elkargunea
2 SEKTOREA	Zubitxo kalea, Auñamendi kalearekiko elkargunea
2.1. SEKTOREA	Plazeta kalea, Arretxene kalearekiko elkargunea
3 SEKTOREA	Zubitxo kalea, Txerrimuño Baserriaren ingurua



b) EREMU INDUSTRIALEKO SEKTOREAK

SEKTOREA	KUTXATILAREN KOKAPENA
4 SEKTOREA	103 poligonoa, Irurtzun kalea eta Urune Kalearen elkargune ingurua
5 SEKTOREA	110 poligonoa, Ipintza kalea ingurua
5.1. SEKTOREA	Iturrin bailara 4 ingurua
PRESIOA MURRIZTEKO BALBULA	108 poligonoaren (Iturrin) sarreran



3.2. HORNITU ETA INSTALATU BEHARREKO EKIPO ETA OSAGARRIAK

1 SEKTOREA

1 sektorea Lezoko hirigunearen hego-ekialdean dago. Hornidura ura Darietako biltegitik dator. Sektore honetako emari guztia 200 mm-ko diametroa duen zuntz-zementuzko hodi batetik sartzen da, Herriondo Bailara kalean, Jaizkibel Hiribidearekiko elkargunean. Neurketa- eta komunikazio-ekipoak Udalak adierazitako kutxatilan instalatuko dira.

Hauek dira hornitu eta instalatu beharreko ekipo eta osagarriak:

1 SEKTOREA: EKIPOAK ETA OSAGARRIAK		
KOP.	**ELEMENTUA**	**DESKRIBAPENA**
2 Ut.	200/150 MURRIZKETA-KONOA	200 mm-ko DNtik 150 mm-ko DNra murrizteko galdaketa-konoa, instalazioa eta martxan jartzea barne.
2 Ut.	BRIDA ENTXUFE UNIBERTSALA DN 200	Brida-entxufea lotura (terminala), burdinurtu harikorrekoa, K = 12, DN 200 mm, PN 16 atm brida, pintura bituminosozko barne- eta kanpo-estaldurarekin. Instalazioa eta probak barne.
1 Ut.	DN 150 EMARI-NEURGAILUA	Emari-neurgailu elektromagnetikoa, MAG 8000 DN150 PN16 modeloa edo antzekoa. Instalazioa eta martxan jartzea barne.
1 Ut.	DN 150 DESMUNTATZE-ORGA	DN 150 mm, PN 16 atm burdinurtuzko desmuntaketa juntura autosostengatua. Instalazioa eta martxan jartzea barne
1 Ut.	PRESIO HARTUNEA	Presio hartunea, pikajea, instalazioa , martxan jartzea eta beharrezko elementuak barne (manometroa, bola-giltza, lepokoa, tea, entxufe azkarra eta bi ukondo).
1 Ut.	DN 200 UHATE-BALBULA	Uhate-balbula, DN 200 mm eta PN 16 atm, serie laburra (oinarrizko seriea 14, ISO 5752:1982 arauaren arabera), briden bidez lotua. Instalazioa eta beharreko probak barne.
1 Ut.	DATUAK ESKURATZEKO SISTEMA EDO DATALOGGERRA	Nemos LQ GPRES Microcom edo antzeko emari-datuak eskuratzeko sistema, GPRS komunikazioa duena, hezetasun-maila handia duten kutxatiletan eta inguruneetan instalatzeko berariaz pentsatua (IP67 babes-maila). Instalazaioa eta martxan jartzea barne.
1 Ut.	GAILUAK BABESTEKO KAXA	270x220x105 mm-ko dimentsioko Himel motako edo antzeko poliester-kaxa bat instalatzea, aurreikusitako ekipo-elementuak babesteko (Data logger eta emari-neurgailuaren elektronika), baita estaldura-probak ere.

2 SEKTOREA

2 sektorea Lezoko hiri-eremuko ipar-mendebaldean dago. Hornidura ura Darietako biltegitik dator. Sektore horretarko emari guztia 200 mm-ko diametroa duen zuntz-zementuzko hodi batetik sartzen da, Zubitxo kalean, Auñamendi kalearekiko elkargunean. Neurketa- eta komunikazio-ekipoak udalak adierazitako kutxatilan instalatuko dira.

Hauek dira hornitu eta instalatu beharreko ekipo eta osagarriak:

2 SEKTOREA: EKIPOAK ETA OSAGARRIAK		
KOP.	**ELEMENTUA**	**DESKRIBAPENA**
2 Ut.	DN 200/150 MURRIZKETA-KONOA	200 mm-ko DNtik 150 mm-ko DNra murrizteko galdaketa-konoa, instalazioa eta martxan jartzea barne.
2 Ut.	BRIDA ENTXUFE UNIBERTSALA DN 200	Brida-entxufea lotura (terminala), burdinurtu harikorrekoa, K = 12, DN 200 mm, PN 16 atm brida, pintura bituminosozko barne- eta kanpo-estaldurarekin. Instalazioa eta probak barne.
1 Ut.	DN 150 EMARI-NEURGAILUA	Emari-neurgailu elektromagnetikoa, MAG 8000 DN150 PN16 modeloa edo antzekoa. Instalazioa eta martxan jartzea barne.
1 Ut.	DN 150 DESMUNTATZE-ORGA	DN 150 mm, PN 16 atm burdinurtuzko desmuntaketa juntura autosostengatua. Instalazioa eta martxan jartzea barne
1 Ut.	PRESIO HARTUNEA	Presio hartunea, pikajea, instalazioa , martxan jartzea eta beharrezko elementuak barne (manometroa, bola-giltza, lepokoa, tea, entxufe azkarra eta bi ukondo).
1 Ut.	DN 200 UHATE-BALBULA	Uhate-balbula, DN 200 mm eta PN 10/16 atm, serie laburra (oinarrizko seriea 14, ISO 5752:1982 arauaren arabera), briden bidez lotua. Instalazioa eta beharreko probak barne.
1 Ut.	DATUAK ESKURATZEKO SISTEMA EDO DATALOGGERRA	Nemos LQ GPRES Microcom edo antzeko emari-datuak eskuratzeko sistema, GPRS komunikazioa duena, hezetasun-maila handia duten kutxatiletan eta inguruneetan instalatzeko berariaz pentsatua (IP67 babes-maila). Instalazaioa eta martxan jartzea barne.
1 Ut.	GAILUAK BABESTEKO KAXA	270x220x105 mm-ko dimentsioko Himel motako edo antzeko poliester-kaxa bat instalatzea, aurreikusitako ekipo-elementuak babesteko (Data logger eta emari-neurgailuaren elektronika), baita estaldura-probak ere.

2.1 AZPISEKTOREA

2.1 sektorea Lezoko hiriguneko ipar-ekialdean dago. Azpisektore hau 2 sektoreak hornitzen du. Azpisektore honetara sartzen den emari guztia, beraz, azpisektore horren eta 2 sektorearen arteko loturatik sartzen da, 100 mm-ko diametroa duen burdinurtu harikorrezko hodi baten bidez. Hodi hori Plazeta kalean dago, Arretxene kalearekiko elkargunean. Neurketa- eta komunikazio-ekipoak Udalak adierazitako kutxatilan instalatuko dira.

Hauek dira hornitu eta instalatu beharreko ekipo eta osagarriak:

2.1 SEKTOREA: EKIPOAK ETA OSAGARRIAK		
KOP.	**ELEMENTUA**	**DESKRIBAPENA**
2 Ut.	BRIDA ENTXUFEA DN 100	Brida-entxufea lotura (terminala), burdinurtu harikorrekoa, K = 12, DN 100 mm, PN 16 atm brida, pintura bituminosozko barne- eta kanpo-estaldurarekin. Instalazioa eta probak barne.
1 Ut.	DN 100 EMARI-NEURGAILUA	Emari-neurgailu elektromagnetikoa, MAG 8000 DN100 PN16 modeloa edo antzekoa. Instalazioa eta martxan jartzea barne.
1 Ut.	DN 100 DESMUNTATZE-ORGA	DN 150 mm, PN 16 atm burdinurtuzko desmuntaketa juntura autosostengatua. Instalazioa eta martxan jartzea barne
1 Ut.	PRESIO HARTUNEA	Presio hartunea, pikajea, instalazioa , martxan jartzea eta beharrezko elementuak barne (manometroa, bola-giltza, lepokoa, tea, entxufe azkarra eta bi ukondo).
1 Ut.	DN 100 UHATE-BALBULA	Uhate-balbula, DN 100 mm eta PN 10/16 atm, serie laburra (oinarrizko seriea 14, ISO 5752:1982 arauaren arabera), briden bidez lotua. Instalazioa eta beharreko probak barne.
1 Ut.	DATUAK ESKURATZEKO SISTEMA EDO DATALOGGERRA	Nemos LQ GPRES Microcom edo antzeko emari-datuak eskuratzeko sistema, GPRS komunikazioa duena, hezetasun-maila handia duten kutxatiletan eta inguruneetan instalatzeko berariaz pentsatua (IP67 babes-maila). Instalazaioa eta martxan jartzea barne.
1 Ut.	GAILUAK BABESTEKO KAXA	270x220x105 mm-ko dimentsioko Himel motako edo antzeko poliester-kaxa bat instalatzea, aurreikusitako ekipo-elementuak babesteko (Data logger eta emari-neurgailuaren elektronika), baita estaldura-probak ere.

3 SEKTOREA

3 sektorea Lezoko hirigunearen hego-mendebaldean dago. Hornidura ura Darietako biltegitik dator eta sektorera datorren ur-emari guztia Zubitxo kalean dagoen 150 mm-ko diametroko burdinurtu harikorrezko hoditik sartzen da. Neurketa- eta komunikazio-ekipoak Udalak adierazitako kutxatilan instalatuko dira.

Hauek dira hornitu eta instalatu beharreko ekipo eta osagarriak:

3 SEKTOREA: EKIPOAK ETA OSAGARRIAK		
KOP.	**ELEMENTUA**	**DESKRIBAPENA**
2 Ut.	DN 150/100 MURRIZKETA-KONOA	150 mm-ko DNtik 100 mm-ko DNra murrizteko galdaketa-konoa, instalazioa eta martxan jartzea barne.
2 Ut.	BRIDA ENTXUFE UNIBERTSALA DN 150	Brida-entxufea lotura (terminala), burdinurtu harikorrekoa, K = 12, DN 150 mm, PN 16 atm brida, pintura bituminosozko barne- eta kanpo-estaldurarekin. Instalazioa eta probak barne.

1 Ut.	DN 100 EMARI-NEURGAILUA	Emari-neurgailu elektromagnetikoa, MAG 8000 DN100 PN16 modeloa edo antzekoa. Instalazioa eta martxan jartzea barne.
1 Ut.	DN 100 DESMUNTATZE-ORGA	DN 100 mm, PN 16 atm burdinurtuzko desmuntaketa juntura autosostengatua. Instalazioa eta martxan jartzea barne
1 Ut.	PRESIO HARTUNEA	Presio hartunea, pikajea, instalazioa , martxan jartzea eta beharrezko elementuak barne (manometroa, bola-giltza, lepokoa, tea, entxufe azkarra eta bi ukondo).
1 Ut.	DN 150 UHATE-BALBULA	Uhate-balbula, DN 150 mm eta PN 10/16 atm, serie laburra (oinarrizko seriea 14, ISO 5752:1982 arauaren arabera), briden bidez lotua. Instalazioa eta beharreko probak barne.
1 Ut.	DATUAK ESKURATZEKO SISTEMA EDO DATALOGGERRA	Nemos LQ GPRES Microcom edo antzeko emari-datuak eskuratzeko sistema, GPRS komunikazioa duena, hezetasun-maila handia duten kutxatiletan eta inguruneetan instalatzeko berariaz pentsatua (IP67 babes-maila). Instalazaioa eta martxan jartzea barne.
1 Ut.	GAILUAK BABESTEKO KAXA	270x220x105 mm-ko dimentsioko Himel motako edo antzeko poliester-kaxa bat instalatzea, aurreikusitako ekipo-elementuak babesteko (Data logger eta emari-neurgailuaren elektronika), baita estaldura-probak ere.

4 SEKTOREA

4 sektorea Lezoko industria-eremuaren ipar-mendebaldean dago. Hornidura ura Darieta biltegitik dator, eta bertatik inpultsio-ponpa baten bidez ponpatzen da. Sektore honetako ur-emari guztia 200 mm-ko diametroa duen burdinurtu harikorrezko hodi baten bidez sartzen da, Gaintxurizketa kaletik, Irurtzun kaleko bidegurutzearen parean. Neurketa- eta komunikazio-ekipoak Udalak adierazitako kutxatilan instalatuko dira.

Hauek dira hornitu eta instalatu beharreko ekipo eta osagarriak:

4 SEKTOREA: EKIPOAK ETA OSAGARRIAK		
KOP.	**ELEMENTUA**	**DESKRIBAPENA**
2 Ut.	200/150 MURRIZKETA-KONOA	200 mm-ko DNtik 150 mm-ko DNra murrizteko galdaketa-konoa, instalazioa eta martxan jartzea barne.
2 Ut.	BRIDA ENTXUFE UNIBERTSALA DN 200	Brida-entxufea lotura (terminala), burdinurtu harikorrekoa, K = 12, DN 200 mm, PN 16 atm brida, pintura bituminosozko barne- eta kanpo-estaldurarekin. Instalazioa eta probak barne.
1 Ut.	DN 150 EMARI-NEURGAILUA	Emari-neurgailu elektromagnetikoa, MAG 8000 DN150 PN16 modeloa edo antzekoa. Instalazioa eta martxan jartzea barne.
1 Ut.	DN 150 DESMUNTATZE-ORGA	DN 150 mm, PN 16 atm burdinurtuzko desmuntaketa juntura autosostengatua. Instalazioa eta martxan jartzea barne
1 Ut.	PRESIO HARTUNEA	Presio hartunea, pikajea, instalazioa , martxan jartzea eta beharrezko elementuak barne (manometroa, bola-giltza, lepokoa, tea, entxufe azkarra eta bi ukondo).

1 Ut.	DN 200 UHATE-BALBULA	Uhate-balbula, DN 200 mm eta PN 10/16 atm, serie laburra (oinarrizko seriea 14, ISO 5752:1982 arauaren arabera), briden bidez lotua. Instalazioa eta beharreko probak barne.
1 Ut.	DATUAK ESKURATZEKO SISTEMA EDO DATALOGGERRA	Nemos LQ GPRES Microcom edo antzeko emari-datuak eskuratzeko sistema, GPRS komunikazioa duena, hezetasun-maila handia duten kutxatiletan eta inguruneetan instalatzeko berariaz pentsatua (IP67 babes-maila). Instalazaioa eta martxan jartzea barne.
1 Ut.	GAILUAK BABESTEKO KAXA	270x220x105 mm-ko dimentsioko Himel motako edo antzeko poliester-kaxa bat instalatzea, aurreikusitako ekipo-elementuak babesteko (Data logger eta emari-neurgailuaren elektronika), baita estaldura-probak ere.

5 SEKTOREA

5 sektorea Lezoko industria-eremuaren hegoaldean dago. Hornidura ura Darietako biltegitik dator, impulsio-ponpa baten bidez. Sektore honetako ur-emari guztia 125 mm-ko burdinurtu harikorrezko hodi baten bidez sartzen da, Gaintxurizketa kalean kokatua. Neurketa- eta komunikazio-ekipoak Udalak adierazitako kutxatilan instalatuko dira.

Hauek dira hornitu eta instalatu beharreko ekipo eta osagarriak:

5 SEKTOREA: EKIPOAK ETA OSAGARRIAK		
KOP.	**ELEMENTUA**	**DESKRIBAPENA**
2 Ut.	DN 125/100 MURRIZKETA-KONOA	125 mm-ko DNtik 100 mm-ko DNra murrizteko galdaketa-konoa, instalazioa eta martxan jartzea barne.
2 Ut.	BRIDA ENTXUFE UNIBERTSALA DN 125	Brida-entxufea lotura (terminala), burdinurtu harikorrekoa, K = 12, DN 125 mm, PN 16 atm brida, pintura bituminosozko barne- eta kanpo-estaldurarekin. Instalazioa eta probak barne.
1 Ut.	DN 100 EMARI-NEURGAILUA	Emari-neurgailu elektromagnetikoa, MAG 8000 DN100 PN16 modeloa edo antzekoa. Instalazioa eta martxan jartzea barne.
1 Ut.	DN 100 DESMUNTATZE-ORGA	DN 100 mm, PN 16 atm burdinurtuzko desmuntaketa juntura autosostengatua. Instalazioa eta martxan jartzea barne
1 Ut.	PRESIO HARTUNEA	Presio hartunea, pikajea, instalazioa , martxan jartzea eta beharrezko elementuak barne (manometroa, bola-giltza, lepokoa, tea, entxufe azkarra eta bi ukondo).
1 Ut.	DN 125 UHATE-BALBULA	Uhate-balbula, DN 125 mm eta PN 10/16 atm, serie laburra (oinarrizko seriea 14, ISO 5752:1982 arauaren arabera), briden bidez lotua. Instalazioa eta beharrezko probak barne.
1 Ut.	DATUAK ESKURATZEKO SISTEMA EDO DATALOGGERRA	Nemos LQ GPRES Microcom edo antzeko emari-datuak eskuratzeko sistema, GPRS komunikazioa duena, hezetasun-maila handia duten kutxatiletan eta inguruneetan instalatzeko berariaz pentsatua (IP67 babes-maila). Instalazaioa eta martxan jartzea barne.
1 Ut.	GAILUAK BABESTEKO KAXA	270x220x105 mm-ko dimentsioko Himel motako edo antzeko poliester-kaxa bat instalatzea, aurreikusitako ekipo-elementuak babesteko (Data logger eta emari-neurgailuaren elektronika), baita estaldura-probak ere.

- **5.1. AZPISEKTOREA**

5.1 azpisektorea Lezoko industrialdearen ekialdean dago. Hornidura ura Darietako biltegitik dator, inpultsio-ponpa baten bidez. Sektore honetako emari guztia burdinurtu harikorreko 150 mm-ko hodi batetik sartzen da. Hodi hori Gaintxurizketa kalean dago, Iturrin Bailararekin gurutzatzen den tokian (gasolindegiaren aurrean). Neurketa- eta komunikazio-ekipoak Udalak adierazitako kutxatilan instalatuko dira.

Azpisektorea kudeatzeko gailuez gain, presioa murrizteko balbula (PRV) bat ere instalatuko da 108 poligonoaren (Iturrin) sarreran, Lezoko Udalak adierazitako kutxatilan. Balbula hori jartzeak sektore honetako hegoaldeko eremuko presioak murriztea ahalbidetuko du, 80 metro inguruko balioetatik 45 eta 60 metro arteko tartera jaitsiz, gutxi gorabehera.

Hauek dira hornitu eta instalatu beharreko ekipo eta osagarriak:

5.1 SEKTOREA: EKIPOAK ETA OSAGARRIAK		
KOP.	**ELEMENTUA**	**DESKRIBAPENA**
2 Ut.	DN 150/100 MURRIZKETA-KONOA	150 mm-ko DNtik 100 mm-ko DNra murrizteko galdaketa-konoa, instalazioa eta martxan jartzea barne.
2 Ut.	BRIDA ENTXUFE UNIBERTSALA DN 150	Brida-entxufea lotura (terminala), burdinurtu harikorrekoa, K = 12, DN 150 mm, PN 16 atm brida, pintura bituminosozko barne- eta kanpo-estaldurarekin. Instalazioa eta probak barne.
1 Ut.	DN 100 EMARI-NEURGAILUA	Emari-neurgailu elektromagnetikoa, MAG 8000 DN100 PN16 modeloa edo antzekoa. Instalazioa eta martxan jartzea barne.
1 Ut.	DN 100 DESMUNTATZE-ORGA	DN 100 mm, PN 16 atm burdinurtuzko desmuntaketa juntura autosostengatua. Instalazioa eta martxan jartzea barne
1 Ut.	PRESIO HARTUNEA	Presio hartunea, pikajea, instalazioa , martxan jartzea eta beharrezko elementuak barne (manometroa, bola-giltza, lepokoa, tea, entxufe azkarra eta bi ukondo).
1 Ut.	DN 150 UHATE-BALBULA	Uhate-balbula, DN 150 mm eta PN 10/16 atm, serie laburra (oinarrizko seriea 14, ISO 5752:1982 arauaren arabera), briden bidez lotua. Instalazioa eta beharreko probak barne.
1 Ut.	DATUAK ESKURATZEKO SISTEMA EDO DATALOGGERRA	Nemos LQ GPRES Microcom edo antzeko emari-datuak eskuratzeko sistema, GPRS komunikazioa duena, hezetasun-maila handia duten kutxatiletan eta inguruneetan instalatzeko berariaz pentsatua (IP67 babes-maila). Instalazaioa eta martxan jartzea barne.
1 Ut.	GAILUAK BABESTEKO KAXA	270x220x105 mm-ko dimentsioko Himel motako edo antzeko poliester-kaxa bat instalatzea, aurreikusitako ekipo-elementuak babesteko (Data logger eta emari-neurgailuaren elektronika), baita estaldura-probak ere.

PRESIOA MURRIZTEKO BALBULA (VRP)		
KOP.	**ELEMENTUA**	**DESKRIBAPENA**
1 Ut.	PRESIOA MURRIZTEKO BALBULA DN100	DN100, PN16. Instalazioa eta probak barne.
2 Ut.	UHATE-BALBULAK DN100	PRVa isolatzeko, sarreran eta irteeran, mantentze-lanetarako. Instalazioa eta probak barne.
1 Ut.	"Y" MOTAKO IRAGAZKIA / KOLADOREA DN100	Partikula solidoetatik babesteko; PRVaren aurretik. Instalazioa eta probak barne.
1 Ut.	MANOMETROAK 1/2" HARTUNEAREKIN	Bat PRVaren aurretik eta bestea atzetik. Instalazioa eta probak barne.

1 sektorea	7.050,00 €
2 sektorea	7.050,00 €
2.1 sektorea	5.600,00 €
3 sektorea	6.050,00 €
4 sektorea	7.050,00 €
5 sektorea	6.050,00 €
5.1 sektorea	6.050,00 €
Presioa murrizteko balbula	3.100,00 €
GUZTIRA	**48.000,00 €**

3.3. JARRAITU BEHARREKO URRATSAK

3.3.1. AURRETIAZKO PRESTAKUNTZA ETA PLANGINTZA

Udalak izendatutako teknikariekin koordinatuz, honako jarduerak egingo dira, besteak beste:

- Instalazio-puntuen egoera aztertu eta gailuen kokapen zehatza definitzea.

- Ekipoen arteko bateragarritasuna egiaztatzea: emari-neurgailua, dataloggerra, manometroa, etab.
- Komunikazio irizpideak aurredefinitzea:
  - Transmititu beharreko datuen formatua eta egitura.
  - Monitorizatu beharreko parametroak (emaria, presioa, alarmak, etab.).
  - Transmisio-maiztasuna eta datuak biltegiratzeko politikak.
  - Komunikazioko eta sarbide-segurtasuneko protokoloak.

3.3.2. EKIPOEN INSTALAZIOA

a) Hodien aurre-egokitzapenak

- Sarea moztea eta piezak instalatzea:
  - Erreduktore konikoak
  - Brida-entxufeak eta uhate-balbulak

b) Emari-neurgailu elektromagnetikoa muntatzea

- Emari-neurgailua instalatzea (DN150).
- Transmisorea muntatzea (integratua edo urrunekoa).
- Desmuntatzeko juntura jartzea, mantentze-lanak errazteko.

c) Presio-hargunearen instalazioa

- Hodiaren pikajea egitea.
- Manometroa, bola-balbula, entxufe azkarra, ukondoak eta osagarriak instalatzea.

d) Dataloggerra eta babes-kaxa muntatzea

- Himel motako poliesterrezko kaxa edo antzekoa finkatzea.
- Datalogerra kaxa barruan muntatzea
- Emari-neurgailua eta sentsoreak dataloggerrera konektatzea.

Emari-neurgailauek eta dataloggerrek kanpo-elikadurarako aukera izango dute, bateria bidezko funtzionamendu autonomoaz gain. Udalak adierazitako inguruko koadro elektriko batera konektatuta utzi beharko dira.

3.3.2. KOMUNIKAZIOEN KONFIGURAZIOA

- Dataloggerren parametrizazioa
- Estaldura-probak eta konektagarritasuna egiaztatzea.
- Alarmak programatzea eta datuen babeskopiak konfiguratzea

3.3.3. URRUTIAZKO IRAKURKETA PLATAFORMAN INTEGRATZEA (ZEUS EDO ANTZEKOA)

- Neurketa-puntuen alta sisteman.
- Metadatuak kargatzea: kokapena, identifikatzailea, diametro izendatua, neurgailu mota.
- Datuak denbora errealean jasotzea baliozkotzea.
- Bistaratzearen, alarmen eta erregistro historikoen inguruko egiaztapenak.

3.3.4. ABIAN JARTZEA ETA AZKEN EGIAZTAPENAK

- Emarien eta presioen neurketen egokitasuna landan egiaztatzea.
- Dataloggerren biltegiratzea eta transmisio zuzena egiaztatzea
- Urruneko komunikazioaren integrazioa baliozkotzea ZEUS plataforman edo baliokidean.
- Lezoko Udalak izendatutako langileei dagozkion jarraibideak ematea.

4. ENTREGATZEKOAK

- Instalatutako ekipoen erabiltzailearen eskuliburuak.
- Instalazioen planoak eta eskemak.
- Ekipoen ziurtagiriak eta bermeak.

5. ETIKETATZE BERDEA ETA ETIKETATZE DIGITALA

Jarduketa honek zuzenean laguntzen du trantsizio ekologikoan. Zehazki, Suspertze ea Erresilientzia Mekanismoaren Erreglamenduaren VI. Eranskinean jasotako 041bis klima-etiketan sartzen da, eta %40ko ekarpena egiten die klima-helburuei eta %100ekoa ingurumen-helburuei. Dena den, ez du zuzenean laguntzen trantsizio digitalean.

6. INGURUMENARI KALTE NABARMENIK EZ ERAGITEKO PRINTZIPIOA (DNSH)

Kontratistak eta izan litezkeen azpikontratistek bermatuko dute «ingurumenari kalte nabarmenik ez eragiteko» printzipioa (DNSH) errespetatuko dutela, hala exijitzen baitute Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoa ezartzen duen 2021/241 (EB) Erregelamenduak eta inbertsio jasangarriak errazteko esparrua ezartzeari buruzko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2020ko ekainaren 18ko 2020/852 (EB) Erregelamenduaren (2019/2088 (EB) Erregelamendua aldatzen dueña) 17. artikuluak. Bereziki, «kalte nabarmenik ez eragiteko» printzipioaren aplikazioari buruzko gida teknikoa argitaratzen duen Batzordearen Komunikazioa (2021/C 58/01) beteko da.

Ondorio horietarako, erantzukizunpeko adierazpen bat izenpetu beharko dute, lizitazio honen Karatulan Eranskin gisa agertzen dena bezalakoa, 6 ingurumen-helburuei «kalte

nabarmenik ez eragiteko» printzipioa betetzeari buruzkoa, 2020/852 (EB) Erregelamenduaren 17. artikuluan ezartzen den moduan.

Arreta berezia jarri beharko dute honako irizpide hau betetzen:

- Erabilitako ekipoek ez dute edukiko 2011/65/EB Zuzentarauaren II. eranskinean zerrendatutako substantzia murrizturik, material homogeneoetan pisuko kontzentrazioaren balioek eranskin horretan zerrendatutako balioak gainditzen ez dituztenenean izan ezik.

Kontratistak aurkeztu beharko du:

1. Ekipoen CE marka.
2. Halakorik ezean, egiaztatu beharreko araua betetzen dela begiratzeko fitxa teknikoa.

7. KOMUNIKAZIO-BETEBEHARRAK

Kontratistak eta azpikontratistek, halakorik balego, Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Plana kudeatzeko sistema konfiguratzen duen irailaren 29ko HFP/1030/2021 Aginduaren 9. artikuluan (“Komunikazioa”) ezarritako informazio eta publizitate betebeharrak bete beharko dituzte.

Zehazki, honako betebehar hauek bete beharko dituzte:

a) Lan-dokumentuetan, txostenetan eta kontratuaren objekturako behar diren jarduketetan erabiltzen den edozein euskarri motatan behar bezala eta argi eta garbi erakutsiko da EBren enblema, “Europar Batasunak finantzatua - NextGenerationEU” finantzaketa egokiaren adierazpenarekin batera, SEEParen logoaren aldamenean. Horrez gain, erreferentzia hau eduki beharko dute bai goiburuan bai garapen-gorputzean: «Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Plana - Europar Batasunak finantzatua - NextGenerationEU».

b) Informazio- eta komunikazio-neurrietan, edozein dela ere erabiltzen den komunikazio-kanala, aipatu beharko da inbertsioa Europar Batasunak finantzatzen duela Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoaren bitartez (NextGenerationEU), Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren C5.I1 «Arazketako, saneamenduko, efizientziako, aurrezpeneko, berrerabilerako eta azpiegituren segurtasuneko jarduketak gauzatzea» inbertsioaren finantza-tresnaz baliatuta.

c) Kontratazio-organoak, kontratua betearazten den bitartean, bitarteko eta/edo formatu bakoitzean behar den edukiari buruzko adierazpenak emango ditu.

d) Bidezkoa denean, erantzukizunetik salbuesteko klausula hau adieraziko da: «Europar Batasunak finantzatua - NextGenerationEU. Alabaina, adierazitako ikuspuntuak eta iritziak egilearenak edo egileenak besterik ez dira, eta ez

dituzte nahitaez islatzen Europar Batasunarenak edo Europako Batzordearenak. Ez Europar Batasuna ez Europako Batzordea ezin dira horien erantzuletzat jo».

8. HIZKUNTZA BETEBEHARRAK

Kontratu honen egikaritzatik entregatu beharreko lanak (sarearen memoria deskribatzailea, arazo-guneen azterketa-txostena, ekintza-plana…) elebitan aurkeztu beharko dira. Hau da, euskarazko eta gaztelerazko bertsioak entregatuko dira, eta itzulpen kosturik balego, horiek esleipendunaren kontura izango dira.

9. BERDINTASUN BETEBEHARRAK

Enpresa esleipendunak lengoaia barneratzailea erabili beharko du kontratu hau exekutatzean sortzen den dokumentazio, publizitate, irudi edo material guztietan.